

UDAL BATZARRAREN AKTA

Akta zenbakia: 4/2002

Bilera data: 2002-04-08

Bilera mota: Ohiz kanpoko osoko bilkura

Deialdia: Lehenengoa

Ordua: 19:35 – 19:45

Tokia: Udaletxeko areto nagusia

Bertaratutakoak:

Alkatea: Jose M^a Sarasola Goenaga

Alkate orde: Pedro M^a Peñagarikano Labaka

Zinegotziak:

Miren Maite Aizpurua Etxeberria

Manuel Odriozola Iruretagoiena

Mikel Errazkin Agirrezabala

Idazkaria:

Iñaki Arrue Espinosa

Aztergaiak:

1.- Loatzo Musika Eskolako barne araudia onartzea eta bertako batzordeko kideen izendapena.

2.- Batasunak aurkeztutako mozioa.

Esan-eginak eta erabakiak:

1.- Loatzo Musika Eskolako barne araudia onartzea eta bertako batzordeko kideen izendapena.

Alkateak lehenengo gaia aurkeztu du eta jarraian Manu Odriozola zinegotziak hitza hartu du adierazteko 2001.eko ekainean hasi zela Eusko Jauriaritzan Anoetako Musika Eskola legeztatze prozedura eta prozedura horren tramiteetakoak osatzeko bilkura honetara ekartzen den barne araudiaren onespina eta batzorde eragileko kideen izendapena direla.

Hortaz, alde batetik ohiz kanpoko bilkuraren jakinarazpenarekin batera banatutako barne araudia onartzea eta, bestetik, zuzendari bezala Anoetako kultura batzordeko lehendakaria den Manu Odriozola Iruretagoiena, zuzendariorde bezala Anoetako kultura batzordeko zinegotzia den Mikel Errazkin, koordinatzaile bezala udal musika eskolako irakaslea den Javier Sarasa Amezttoy, eta idazkari bezala Anoetako kultur teknikaria den Teresa Soto Bermejo, "Loatzo" Musika Eskolako batzorde eragileko kideak izendatzea proposatzen da.

Ikusirik aurkeztutako "Loatzo" Musika Eskolako barne araudia eta Anoetako kultur zinegotziak proposatutako batzordekideen izendapena, eztabaidarik egin gabe eta inongo eranskinik gabe, "Loatzo" Musika Eskolako barne araudia eta batzorde eragileko batzordekideen izendapena onartu ditu udalbatzarrak.

Erabakia

Udal batzarreko gehiengo osoa osatzen duten bertaratutako udal zinegotziek aho batez erabaki dute:

1.- "Loatzo" Musika Eskolako barne araudia onartzea (I eranskina) eta, apirilaren 2ko 7/1985 Legeak, Toki Jardunbideko Oinarriak arautzen dituenak, haren 49, b) artikuluan xedatutakoaren arabera, erreklamazioak eta alegazioak aurkezteko hogeit hamar eguneko epean jendaurrera eta interesatuen entzunaldira jartzea.

2.- "Loatzo" Musika Eskolako batzorde eragilearen batzordekideen izendapen hau:

Batzorde eragilearen zuzendaria: Anoetako Kultura Batzordeko lehendakaria den Manu Odriozola Iruretagoiena.

Batzorde eragilearen zuzendariordea: Anoetako Kultura Batzordeko zinegotzia den Mikel Errazkin.

Batzorde eragilearen koordinatzailea: Udal Musika Eskolako irakaslea den Javier Sarasa Amezttoy.

Batzorde eragilearen idazkaria: Anoetako kultur teknikaria den Teresa Soto Bermejo.

2.- Batasunak aurkeztutako mozioa.

Alkateak bigarren gaia aipatu du, Batasunak aurkeztutako mozioa alegia, eta segituan irakurri du "Batasunaren mozioa":

“BATASUNAREN MOZIOA

Eguna joan eta eguna etorri Euskal Herriaren hitza eta erabakia ukatzen jarraitu nahi dutenek eta berau ikusi nahi ez dutenek, bitarteko guztiak jartzen dihardute beraien asmoekin aurrera egiteko. Azken egun hauetan, 13 Euskal Herritar izan dira atxilotuak eta torturatuak espainiar lege Antiterroristapean. Horien artean lau tolosaldekoak. Azkena, Jokin Aranalde Tolosaldeko Batasunaren arduraduna.

Bestalde, espainiar estatuko agintariek, PP eta PSOE-ren bidez, Batasunaren ilegalizazioa gauzatzeko bideak irekitzen jarraitzen dute; edozein aitzakia darabilte egunero Euskal Herriaren eskubideen alde lanean ari den oro kriminalizatzeko eta errepresioa erabiltzeko. Espainiar eta frantziar estatuen tresneria legegile, administratibo eta juridiko guztia bide horren mesedetan dituzte jarriak, beraien benetako izaera antidemokratikoa agerian utziz.

Jokin Aranalde Tolosaldeko Batasunaren arduradun politikoaren atxiloketarekin batera Tolosan Batasunak duen egoitzaren errejistro, txikizio eta prezintatzea ere Euskal Herriaren demokrazia eta bakea ukatzen ari direnen ekintza bezala kokatzen du Batasunak.

Hau guztiaren aurrean, ANOETAko Batasunak Udaleko Osoko Batzarrari honako puntu hauek aurkezten dizkio bertan onartuak izan daitezzen.

1.- Udal honek, Tolosaldeko Batasunaren arduraduna den Jokin Aranalderen atxiloketa eta jasotako tratu txarrak, Euskal Herrian demokraziarik ez dagoenaren beste eredu nabarmen baten gisan kokatzen du. Garbi dago behin eta berriz ere, bi estatuek, ekimen polizialak, ilegalizazioak, atxiloketa agindu arbitrarioak eta Lege Antiterrorista bezalako tresnak erabiltzen dituztela, herri honen eskubideen alde lanean ari direnen aurka.

2.- Berriz ere Batasuna bezalako alderdi politiko baten egoitza, indarrez hartua, errejistratua eta prezintatua izan da. Tolosaldeko lehenengo indar politikoaren egoitzan sartu izanaren larritasuna aipatu nahi dugu, espainiar eta frantziar estatuen helburua, alderdi honen ekimen politiko oro, oztopatzea eta kriminalizatzea delarik.

3.- Udal honek, Euskal Herriak frantziar eta espainiar estatuekin duen gatazkaren irtenbide bakarra, Euskal Herriari zor zaizkion eskubideen aitortzan datzala aldarrikatzen du. Estatuek errepresioa, ilegalizazioa eta bide poliziala alde batetara utzi dezaten eta Herri honen hitza eta erabakiaren aldeko lanean guztiok tinko pausuak ematearen beharra aldarrikatzen du; irtenbide demokratiko honi oztopoak jartzen ari direnei aurre eginaz eta Euskal Herri guztian, euskal herritar guztientzat eskubide guztiak lortu arte.

4.- Udal honek, gertaera hauen aurrean protesta egiteko burutzen diren ekimenetan parte hartzeko deia luzatzen die herritarrei.

5.- Erabaki honen berri publiko egitea.

Tolosaldean, 2002ko apirilaren 2an.- BATASUNA.”

Besterik gabe, eta eztabaidarik egin gabe eta inongo eranskinik gabe, Batasunaren mozioa onartu du udalbatzarrak.

Erabakia

Udal batzarreko gehiengo osoa osatzen duten bertaratutako zinegotziek aho batez onetsi dute Batasunak udal talde politikoak aurkeztutako mozioa.

Bilkura amaiturik, agiri hau egiten dut lehendakariaren oniritziarekin, eztabaidatu eta erabakitakoaz fede emateko.

Anoeta, 2002ko apirilaren 8an

Iñaki Arrue Espinosa
Idazkaria.

O.e.
Jose M^a Sarasola Goenaga
Alkatea